

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anita Anakabe

*Diaspora,
Diaspora
(1954)*

Aurkibidea



Biografia



Elkon jaioa (Nevada). Ama, Margari Olabe, Iruzubieta auzokoa zuen, Berriatuakoa; aita, berriz, Berriatuako Anakabe baserrikoa. Aita 1902an Ameriketa joan zen, 13 urterekin. Merkantzien zaldi-karroak gidatzen eta cowboy moduan (zaldiak mantsotzen) ibili zen, harik eta 1924an McDemitten denda bat ireki zuen arte. Fabiana Goenaga ondarrutarrarekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten; 1928an denda saldu eta Euskal Herrira joan ziren, Gasteizera, hilabete batzuetarako; Ameriketako krisi ekonomikoa gertatu zen orduantxe, Wall Streetko kracka. Bueltan, 1936an, beste denda bat zabaldu zuen Elkon; 1950etik aurrera langileentzat arropa eta oinetakoak saltzen hasi ziren (artzaintzat batik bat). 1952an Fabiana hil egin zen eta Jose Mari Euskal Herrira joan zen emaztegai bila. Margari ezagutu zuen eta ezkondu Elkora joan ziren bizitzera: Anita jaio zen bertan. Anita Elkon egin zituen oinarrizko ikasketak eta gero Boisen maistra-ikasketak egin zituen. Gaztelaniako irakaslea izan da eta baita euskarakoa ere, baina familiako dendan egin du lan gehien. Mike Franzoiarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Boiseko eta Elkoko euskal etxeetan aktibo ibili dira biak.

Zintak

DIA-012

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar

- **Data:** 2025-09-23
- **Iraupena:** 101 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Anakabe, Anita | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com